



Edukiak:

- Sare sozialak
- Ihote eta karroxarako dantza entseguak
- Garraioako bakarkako laguntzak
- Sahara
- Jardun jarraia
- Matrikulazio epea zabalik
- Ihotetarako segurtasun neurriak

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Hurrengo urtarrilak 29an hasita, eta otsailak 9 bitarte, ostirala, 2018/2019 ikasturterako ikasleak matrikulatzeko epea irekita egongo da. Informazio gehiago behar izanez gero deitu 943490193 telefono zenbakira edo otsailak 1ean egongo diren **ATE IREKIETARA HURBIL ZAITEZKETE, ESKOLAREN BARNE FUNTZIONAMENDUA IKUSTEKO IKASLE ETA IRAKASLEEKIN. AZKENIK GOGORATU, MATRIKULAZIO BILERAK, URTARRILAK 22 ETA 23AN IZANGO DIRELA 2 URTEKO ERAIKINEAN, 16:45ETAN. LEHENENGOA EUSKARAZ IZANGO DA, BIGARREZ BERRIZ, GAZTELERAZ.**

IHOTE ETA KARROXARAKO DANTZA ENTSEGUAK

Egutegiari begiratu gero, Ihoteak oso goiz izango ditugu, otsailaren 2, 3 eta 4ko asteburuan hain zuzen ere, horregatik, prestaketa ahalik eta azkarren hasi behar dugu. Guraso Elkarteak hau jakinik, 2018ko urtarrilak 12an, arratsaldeko 16:45etatik aurrera, eskolako jantokian, Ihote dantzen entseguak hasiko ditu eta ostiralero luzatuko ditu aipatutako asteburu arte.




Lerro hauetatik, Guraso Elkarteak, familiako kide guztiak parte hartzera gonbidatzen zaituzte.

GARRAIORAKO BANAKAKO LAGUNTZAK

Eskolara joateko banakako garraiorako diru-laguntzen eskaerak egiteko epea zabalik dago. Eskaera hau autobus geltokitik 2km baino urrunago bizi diren familia oiartzuarrentzat soilik da. Eskaera idazkaritzan bete behar da, urtarrilaren 26a baino lehen.

SAHARA

Urtero bezala, Saharako haurrak Oiartzuna etortzen dira familia ezberdinetan udara pasatzera. Aurtengo plangintzarako 30 familia gehiago behar dira. El Watan elkarteak, hurrengo urtarrilak 30ean, bilera bat antolatu du Elizalde eskolako mediatekan, hirugarren pisuan. Arratsaldeko 16:45etan hasita, inolako konpromisorik gabe, proiektu honen informazio guztia emango dizuete.



Bestalde, arroza, pasta, babarrunak, garbantzuak, dilistak, atuna, sardinak, azukrea eta konpresak behar dituzte. Horregatik, eskolan, atezainaren sarreran kaxa batzuk egongo dira hurrengo egunetan, urtarrilak 15etik 29ra, bertan utz ditzazuen aipatutako gauzak. Jasotakoa Saharara bidaliko da.

JARDUN JARRAIA

Hurrengo **otsailak 2an, ostirala**, Ihoteen festa ospatuko dugu urtero bezala. Lehenengo herrian zehar ibiliko gara sorginekin eta ondoren Elorsoro kiroldegian festa handia antolatu dugu. Familia guztiak gonbidatuak zaudete ikuskizunaz goatzera. Egun hori berezia denez, **goizez bakarrik arituko gara**, horregatik, etxean bazkaltzen dutenek, 13:00etan bukatuko dute, jantokian bazkaltzen dutenez berriz, 15:00.

SARE SOZIALAK

2017ko abenduak 20an egin zen Ordezkarien Organo Gorenean, eskolak sare sozialetan parte hartzea onartu zen. Horregatik, familia guztiei, web orria eta blogaz gain, zuen seme-alabak, sare sozialetako argazkietan azaltzeko baimena ematen duzuen edo ez galdetzen dizuegu, borobildu erantzuna eta zuen seme-alaben tutoreari eman, mesedez:

Gurasoen izen-abizenak:

Seme-alaben izen-abizenak:

BAI EZ



IHOTETARAKO SEGURTASUN NEURRIAK

Oiartzungo Ihote taldeak ondorengo mezua helarazi nahi die familia guztiei:

Lehenik eta behin, ostirala, otsailak 2an, arratsaldean plazan egiten den ekitaldira, sorginez edo intxixuz jantzita EZ joatea eskatzen dute, nahasmenik sor ez dadin. Bestalde, bertan egongo den segurtasun perimetroa, hau da, Udaletxeko hesi urdinek markatzen dutena, ERRESPETATZEA eskatzen da, norbaitek ez balu errespetatuko, ez bailitzaioke hasiera emango festari.



EMAKUME ZIENTZIALARIAK

Lillian Moller (1878/1972) Estatu Batuetako psikologoa izan zen. Doktoradutza lortu zuen lehenengotako emakumea izan zen. Bere lanak, enpresa eta industria munduan aplikatu ziren eta gaur egun ere, oraindik erreferente bezala erabiltzen dituzte hainbat lantegik.



Informazio gehiago: www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta www.elizalde.info